

Xabier Gereño, euskal idazle eta kulturaren bultzatzaile bilbotarra

Xabier Kintana

Jaun-andreok, adiskideok, agur guztioi.

Oso atsegina da enetzat gaur, zuen aurrean, aspaldiko ezaguna eta bihotzeko laguna dudan idazlee honen omenaldian parte hartzea. Ongiegi dakit, halere, berez aurkeztu beharrik ez duela, haren lanek utziriko sustrai sendoak, abar luzeak, lore ederrak eta fruitu ugariak aski garbi eta ozen mintzo baitira beren egileaz, eta segurki askoz ere hobeto neronek neure prosa baldarrez egin nezakeena baino. Baina edonola ere, gustukoa izan zein izan ez, omenaldiek badute beren protokoloa, eta nik, gaurko omenduaren aurkezle izateko ohore handi hau ausartegi onartu dudanez gero, hartarako makurtu behar dut burua, horrekin, haren merezimendu handi eta luzeak aipatzean, Xabier Gereñori guztiok ezagutzen diogun apaltasuna sarritan mindu beharko dudala beldur naizen arren.

Jaió, 1924. urteko abuztuaren 12an egin zen Xabier, non eta Bilbon, aber-tzaletasun nabarmeneko familia baten baitan. Eta nabarmena esan dut, izena eta izana, zoritxarrez, ez baitira beti gurean bat etortzen, baina Xabierren gurasoek, geroxeago xehekiago azalduko dudanez, euskaldun zintzo gisa jokatu zuten, seme-alaba guztiak euskaraz haziz, eta hori orduko Bilbao hartan egiteko zaila bezain ezohikoa izaten zen.

Ikasketak Bilboko Merkatalgo Eskolan egin zituen, Merkatal Peritu titulua lortuz. Bestalde, Kanaria Handiko Las Palmasko Merkatalgorako Goi Eskolan Merkatal Irakasle titulua eskuratu zuen. Era berean, Bilboko Merkatal Goi Ikasketen Eskolan Merkatal Intendente tituluaren jabe egin zen Xabier Gereño. Hizkuntzei dagokienez, euskaraz eta gaztelaniaz gainera, ingelesa, frantsesa eta alemana estudiantu ditu. Hezkuntza osagarri gisa, hiru ikasturte eman zituen Xabierrek pianoa jotzen ikasteko.

Lanbidez 33 urtetan aritu da lanean *La Aeronáutica S.A.* enpresan, harik eta 1980ean Euskaltzaindiak deitu zion arte, hango kontabilitatea eraman zezan. Parada horretaz baliatu zen Xabier lehenbiziko kontabilitate handia euskaraz prestatzeko, geroago beste erakunde eta enpresetan aplikatu dena. Hau, nire ustez, bereziki azpimarratzeko kontua da. Dakigunez, euskal munduan, euskara norbere eguneroko bizimodutik kanpoko zerbaizat hartu da luzaro, hots, garai bateko euskaltzaleek maiz irabazpideko lanak erdara hutsez burutu dituzte, euskara beren aisialdiko poematxo, ipuin, kontakizun edo denporapasetarako utzirik. Xabier Gereñok, ordea, Lizardik gerraurrean jadanik aldarrikatu zuen “noranahiko hizkuntza” bihurtu nahi zuen euskara, kaleko mintzaira, alegia, eta negozioen eta merkatalgoaren munduan txertatu, gaurko euskaldun gehienok ulertzen dugun bezalaxe. Eta alde horretatik, Krutwig eta Txillardegirekin batera, arlo horretan aitzindari izan dugu Xabier Gereño.

Pertsonaren nortasuna ondo ezagutzeko, garrantzi handikoa izaten da nolako zaletasunak dituen jakitea. Jakina, Xabierrek ere baditu bereak. Alde batetik irakurle amorratua da. Bere bizitzan zehar ehundaka liburu irentsi ditu, biografiak bereziki. Eleberri historikoak eta intrigazkoak ere oso gogokoak ditu.

Baina zaletasunik nabarmenena filatelia da, hamar urte zituenetik praktikatu duena. Seiluei esker munduan zehar harreman ugari landu ditu Xabierrek, eta hor ere bere nazioarteko izpiritua ederki erakutsi digu. Eta noski, filateliazalea bai, baina euskalduna ere bai, eta horren haritik, gure hizkuntza arlo horretan finkatzeko asmoz, filateli hiztegia bultzatu zuen, Euskaltzaindiak 1973.eko *Euskera* aldizkarian argitaratua. Bidaiazalea ere izan dugu, eta makina bat ibilaldi egin du mundu zabalean, beste toki batzuetako pertsonak, ohiturak eta kultura ezagutzeko, gizateria, bere osoan, hobeki ulertzeko gogoarekin.

Gaur, behialako diktadura luzea amaitu eta autonomia politikoa erdietsi dugunean, askori ulertezinak irudi dakizkieke zer nolako debeku, oztopo eta eragozpenak jartzen zizkion frankismoak euskal kulturari bere adierazpen guztietan. Garai batzuetan meza bat euskaraz jartzea, dantzari edo txistulari talde bat kaletik ateratzea, euskal jaialditxo bat antolatzea edo disko bat euskaraz grabatzea egundoko lorpenak izaten ziren, etengabeko behaztopo-lasterketa luzearen ondoan neketan burutuak. Ikastola bat irekitzeko baimena eskuratzea, adibidez, ezin sinetsizko heroismotzat jo zitekeen.

Bai, adore eta gogo handia behar zen administrazio antieuskaldun eta botere-etsu hark bidean parra-parra ipintzen zituen elorri eta arantza ugarien artetik jo eta ke aurrera segitzeko, ahalegin izugarri haien ondoan maiz hain fruitu txikia ikusteko. Baina orduan ez zegoen beste biderik, euskal kulturaren alde ezer egingo bazen. Eta hortxe ezagutu nuen nik Xabier Gereño, frankismopeko legalitate hestuan euskarari eta euskalgintzari zirrikituak irekitzeko borroka ixilean, beti ekinean, desanimua zer zen jakin gabe. Gabriel Aresti zenak ere miretsi egingen zuen gizon honen iraupena. Maitasunez “inurritxo” esaten zion, euskal gauzen alde beti hara eta hona, nekagaitz ibiltzen zelako: “Inurritxo horrek daukan pazientziatz eta ekimenaz— ziozan Gabrielelek—, ministerioko etxe osoa birrinduko luke, mokauz mokau”, eta sinestekoa zen.

Gaurko begiekin orduko ekintza batzuei agian mesprezios folklorismoa deituko lieke norbaitek, baina zalantzarik gabe, euskal kultura erabat zapalduarik zegoen une hartan, Xabier Gereño modukoek bultzatzen zituzten iharduera haiek egiazko argi bat ematen zuten gure iluntasunean, eta errekatxo txikiak, mendieta-tik jaistean, aldapan behera gero eta ur-korrante handiagotan elkartzen direnez, azkenean ibaia sortu arte, era berean handitzen ari ziren pixkakanaka hasierako kultur saio apalak, gaurko egoerara heldu arte. Horien artean bereziki aipatzekoa da, izan zuen garrantziagatik, 1968. urtean Bilbon antolatu zen Euskal Kultur Astea, gerra ondoko lehenbizikoa, oker ez banago. Eta Xabier Gereño, iratxo komunistak leku guztietan ikusten zituzten pertsona mesfidati batzuen iritzien kontra, ekintza horren alde agertu zen Zeruko Argian idatzi zuen artikulua eraba-

kigarriarekin. Haren inguruan elkartu ziren Jose Migel Barandiaran, Gabriel Aresti, oraintsu galdu dugun Alfonso Irigoien, Juan San Martin eta Karmele Rotaetxe bezalako euskaltzaleak, ideologia ezberdin baina euskal kultura bultzatzeko helburu amankomunagaz, aniztasun ederraren ispilu gisa.

Eta hor, zer esanik ez, begi zorrotza izan zuen Xabier Gereñok. Berak bazezkie, jakin, orduko gizartearen gustuak eta nahiak nondik nora zihoazen, gazteriarenak batez ere. Batzuetan txistua, beste batzuetan dantzak, hurrengoan kantak eta jaialdiak, teatroa ahantzi gabe. Hortaz, gure hizkuntzan kanta berriak bultzatzeko, Euskal Abestien Jaialdiak antolatu zituen. Bere anaia Joseba eta Sabinekin batera, bestalde, CINSA edizioak sortu eta hortik 42 disko berri atera eta banatu zituen euskaraz musika modernoarekin.

Irratian euskal folkloeari buruzko programak zuzendu ditu, eta hor J. L. Bengoa Zubizarreta izan zuen lankide. Bestetik, Donostian Isidro Ansorenak sorturiko *Txistulari* aldizkaria Bizkaian hedatzen ihardun zuen, Boni Fernández, Manolo Landaluze eta Patxi Ansolarekin batera. Xabierrek, bestalde, *Dantzari* aldizkaria sortu zuen, garai hartan indartzen ari ziren euskal dantzari taldeei laguntza emateko.

Prentsan ehundaka artikulua idatzi ditu euskaraz eta erdaraz, euskal munduari buruz bere ikuspegi pertsonala emateko. Hor gehienetan kaleko jendearen egiazko pentsaera praktikoa islatzen zuen Gereñok, beti ere elitisten elukubrazio teorikoegietatik urrunduz.

Euskararen hedakuntza eta irakaskuntzaz ere kezkatu ibili zaigu beti Xabier. Bera ez zen gramatikaria eta, hantusterik gabe, jende arruntarentzako ikasbide errazak prestatzea zuen helburu. Horrexegatik sortu zuen bere *Método de Euskara* (1976), urte berean ingelesez (*A new method for learning Basque*) eta frantsesez argitaratua (*Nouvelle méthode de Basque*), bere *Diccionario Escolar*-ekin osatua.

Harrezkero, bide berari jarraituz, *Método fácil para aprender euskara básico*, 1983an bost liburukitan argitaratua, *Diccionario Vasco - Hiztegia* (1981) eta *Diccionario General* eta *Gran diccionario General* (1992) plazaratu dizkigu. Era berean Televisión Españolaren lehen katean euskara ikasteko programaren gidioiak ere (*La clase de euskera* izenekoak) berak idatzi zituen.

Baina folklorista, metodogile eta hiztegi-gile izateaz gainera, idazlea ere bada gure Xabier. Bere lehenbiziko eleberria, *Arantza artean*, 1969an argitaratu zuen, handik laster *Argi bat iluntasunean* (1970), *Nora naramazue* (1972), *Hiltzaile baten bila*, *Andereño* (1975) *Iruineako asasinatzea*, *Gudari bat*, *Espioitza* (1977), *Jurgi kapitaina* eta *Kikili eta Kokolo*-ren serie ezagunekin eta era askotako beste elaberri, biografia eta teatro lan askorekin batera, guztira ia ehun liburu inprimatuak izanik. Ez da harrizkoa, beraz, literatur sariak ere eskuratuak izatea, eta 1985.ean Irun Hiria Saria irabazi zuen, *Konspiratzaileak* eleberriarekin, karlisten gerratean giroturik.

Hain idazle oparoa, noski, Euskaltzain urgazlea dugu eta Euskal Idazleeren Elkarteko kidea ere bai. Hori dela eta, Euskal Herriko literatur lehiaketa gehienetako epaimahaien partaide izan da.

Euskarazko lan ugariez gainera, Xabier Gereñok hiru nobela argitaratu ditu gaztelaniaz, —amaitu berri eta oraindik argitaratzeke duenaz gainera— arrakasta handia lortuz. Horietako bi, *Residencia Rochester* eta *Huyendo del pasado*, zinemara eramateko daude, eta jadanik kontratua sinatua dauka horretarako.

Izan da, bai, orain arte egin dituen ehundaka euskal liburu ondoan, azken aldion idatzi dituen hiruzpalau erdal liburu horiengatik espantuka jantzia urratu duenik, edozein pertsonak bere-bereak dituen arrazoi pertsonalak intrantsigentziaz ahaztuz. Kritikari horiek hobe lukete euskaraz ezer idatzi —ez idazten eta segurenik idatziko ere— ez duten hainbat autore eta pertsonaia publikoren portaera benetan kezagarriagoa salatuko balute, eta hain euskaltzale langile hau bakean utzi. Nik neuk, Xabier ezaguturik, errespetatu egiten dut erdaraz ere idazteko bere erabaki hori, eta gainera, bene-benetan uste dut ez diola horregatik inolako azalpenik inori eman behar.

Badu merezimendurik asko, begien bistan denez, gure Xabierrek, gaur egiten diogun omenaldi honetarako, eta handiagoetarako ere bai. Gereñok zulo inportantea bete du bere obrarekin. Izan ere, aski da bere idazlanen izenburuei begiratzea honetaz konturatzeko, hots, autoreak askotan ez dituela goren mailako gaiak jorratu nahi izan, obra erraz, arin eta entretenigarriak eskaintzea baizik. Eta inolako zalantzarik gabe, ongi lortu du helburu hori. Izan ere, hainbat euskaldun berrik irakurri ditu Xabierren elaberriak eta, alfabetatzeko orduan, makina bat euskaldun zahar ere baliatu dira Gereñoren idazlanez, gure hizkuntza idatziaren abiapuntu atsegin gisa.

Imanol Berriatuak nahi zuen bezala, euskara erraza eta asimilagarria erabili du beti Xabierrek, eta horri esker jende asko zaletu da euskaraz irakurtzera. Aldiz, lehen momentuan Txomin Agirre, Gabriel Aresti, Mitxelena edo Bernardo Atxagaren lanekin hasi balira, euskal literatura, bat-batean ulertu ezinik, berehalaxe alde batera utziko zuketzen. Hortaz, Xabierrek premia hori ederki bete duelako, jendeak mesede hori eskertzen ere jakin du. Honen gainean, gogoan dut, orain hogeita bost bat urte, Ramon Saizarbitoriak Durangoko liburu eta disko azokan behin esan zidana, hots, salmenten arabera, irakurleek egiazki nahiago zituzten euskal liburuak Xabier Gereñorenak zirela, irakurterrazak zirelako, eta ez besterenak.

Baina euskara erraza eta gai entretenigarriak idazteak ez du esan nahi, ezta hurrik eman ere, liburu horien tankera eta kalitatea ona ez denik. Ene ustez, Xabierrek, asko irakurria, kultura zabalaren jabe eta bizi-esperientzia handikoa denez, bere arloan egiazko maisua dugu, umorea, ironia, giza grinak, kezak eta ametsak trebeki bilbatu eta korapilatzeko orduan.

Baina literatur obra eta kultur arloko egintza hauez landa, ezin ahantz deza-kegu, halaber, Xabier gizona, guztiok ezagutu eta tratatu dugun Xabier adiski-dea, geure gizartean errotua. Eta, guztiok bezala, Xabierrek ere asko zor dio bere inguruari, bere ondoan izan dituen pertsoneri, bere bidean gidatu, lagundu, txalotu eta, une larrietan, bera ulertu eta eskua luzatu diotenei.

“Nolakoa egurra, halakoa ezpala” dio esaera zaharrak, eta kasu honetan behintzat, antzinakoen esanak arrazoi osoa duela esan genezake inolako zalantzarik gabe. Izan, gaur goraipatzen dugun Xabier Gereñok izan du, bai, nortara eman. Haren aita zena ere, Lorenzo López de Gereño Larrabe jauna ezagutzeko zoria izan nuen. Jatorriz arabarra zen, abertzalea eta euskaldun berria, eta ongi jakin zuen txertatzen bere seme-alaben bihotzetan euskaltzaletasunaren mendu gartsua. Hark bere jokabide zintzoarekin, bere izaera konsekuentearekin eta bere eguneroko praktikan ederki eman zuen barruan zermatzan idealen lekukotasun garbia. Haren emazte Ines Arrarte Martínez-ek bezalaxe. Garai hartako Bilboko erdal giroan makina bat ahalegin eta nahigabe pilo pairatu behar izan zuten. Izan ere, Lorenzo jaunari, abertzalea zelako, hemen, orain, harripetik ere sorturik, hainbeste enpresari nazionalista omen dituen Bilbao honetan, lana luzaro ukatu zitzaion, eta bere sei seme-alabak aurrera ateratzeko, nora eta Kanarietara joan behar izan zuen lan bila.

Gereño jaun zaharrak ordea, ez zuen nahi berak hainbeste nekez euskaraz haziriko haurrak atzerrian gelditu eta han erdaldundurik gelditzea eta horrexegatik, hango lan eroso eta ongi ordaindua alde batera utzirik, —“baina bihotzak dio”, Iparragirreri bezala— atlantiar uharte eder haietatik atzera Bilbora etorri zen, seme-alabak euskal giroan eta sorterrian bizi zitezten. Eta berriz ere hemen lana ukatu —poliziak abertzale izateagatik fitxaturik zeukan pertsona bat kontratatzea arriskugarria zen nonbait—, eta Lorenzo López de Gereñok nora eta Ciudad Real-eraino joan behar izan zuen, lan eske, oraingo honetan baina, haurrak Bilbon utzirik bere emazte Inesen kargupean, egoera larrian. Erabaki latzak eta txalagarriak nik uste, baina,aldi berean, eredu bikain eta imitagarria bere seme-alabentzat. Ez da harrigarria, hortaz, beren gurasoen etxean horrelako sakrifizioak ikusita, haien seme-alabek ondo jakitea egiazko abertzale izatea zer den. Horrexegatik, nik uste, gaur Xabier Gereñori omenaldi hau eskaintzean, ohore hori haren aita-amei ere helarazi behar diegu, beren garaian, ongi merezia izan arren, inoiz aitortu ez zitzaielako.

Xabier Gereño, beraz, ez zen bakarrik ibili. Izan zuen, bai, batasun ideologiko eskergarria eta horregatik, lehentxoago esan dizuedanez, haiekin garrantzi handiko ekintzak burutu zituen, CINSA argitaletxean adibidez.

Beste pertsona batek ere—*last but not least*— aparteko garrantzia izan du Xabierren bizitzan, eta guztiok susma dezakezuenek, bere emaztea aipatu nahi dut, Begoña Bilbao Galartza, duela sei urte hil zena. Harengan Xabierrek euskarri sendoa izan zuen, lagun begiko eta maitakorra, tratu atsegineko pertsona, lankide zintzo eta poz-tristuren partaidea, bera ezagutzeko zortea izan genu-

nontzat ezin ahantzizkoa. Euskaldun berria zen hura ere, eta Xabierrekin batera gure herriaren balio moral eta kultural hobereenen giroan hazi zituen beren semeak Iñaki eta Jon, biak jadanik ezkonduak. Eta Begoñak ederki frogatu digu gizon handi baten ondoan beti emakume handi bat egoten delako egia biribila.

Alargundu ondoren, Xabier Gereño bere borondatez Bakearen Erregina zaharretxe-egoitzarara joan zen, eta ordurezkerok bertan bizi da beste 330 pertsonarekin batera. Hor, etengabeki, idatzi, hitzaldiak antolatu, teatro lanak presatatu eta era askotako kultur ekintzak bultzatzen ditu, hango giroan, hainbeste giza esperientzia ezberdinez aberasturik, idazgai berri arrakastatsuak ateratzen dituen bitartean.

Bere 72 urteetan Xabier Gereñok argi erakusten digu — eta aldi berean inbidia galanta eman ere bai— ez diogula adinari beldurrik izan behar, hots, ez gaituztela urteek zahartzen, geldotasunak, ilusiorik ezak eta etsipenak baino. Horregatik gazte dirau oraindik Xabierrek, asmoz, ametsez eta projektuz beterik dagoelako, eta esango nuke, gaur eta hemen, ohorea ez guk berari, baina berak guri egiten digula, bere presentziarekin, bere bihotz beti gazte eta bere bizipozarekin, hona etorri garen zahar asko, Xabier ikusteak, bera bezain fresko, dinamiko eta sortzaile izatera animatzen gaituelako.

Horrexegatik, adiskide Xabier, bihotz-bihotzez eskerrik asko eta urte askotan.

1996.XII.19